



EBAZPENA, TURISMO ETA MERKATARITZAKO SAILBURUORDEARENA, GIPUZKOAKO MERKATARITZA, INDUSTRIA, ZERBITZU ETA NABIGAZIOKO GANBERA OFIZIALAREN BARNE-ARAUDEAREN ALDAKETA ONARTZEN DUENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA. – 2024ko ekainaren 16an, Gipuzkoako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialeko idazkari nagusiak sinatutako idazki bat sartu zen Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailean. Idazki horretan, Ganberaren Osoko Bilkurak 2023ko abenduaren 14an hartutako erabakia igortzen da, zeinaren bidez onartzen baita Gipuzkoako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialaren artikulua hauek aldatzea: 1, 10.1.c), 17.2, 23.2 eta 25.1.

1. artikulua aldatu egin da, erakunde profesionalen eta entitateen homologazio-baldintzak betetzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritako enpresak sortzeko prozesuetan konprometituta dauden pertsonen aholkularitza eta laguntza teknikoak emateko zerbitzuak ematen dituztenak, zehazki, aipatutako erakundeen estatutuetan, misioan, ikuspegian edo balioetan erakunde horiek berdintasunezko kultura eta egiteko modua oinarri hartuta lan egiten dutela jasota egotea.

Aldatu egiten dira 10.1.c), 17.2, 23.2 eta 25.1 artikulua, Gipuzkoako Ganberaren gobernu-organoen barruan gaur egun Gipuzkoako Ganberaren Osoko Bilkuraren C Taldeko postu hutsen aurrean gertatzen den lege-hutsunea arautzeko; izan ere, aplikatu beharreko araudiak, hau da, Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialen hauteskunde-prozedura eta gobernu-organoen osatura arautzen dituen maiatzaren 26ko 78/2015 Dekretuak, ez eta Gipuzkoako Ganberaren indarreko Barne Araubidearen Erregelamenduak berak ere, ez zuen aurreikusten irtenbide egokirik hutsune horietarako.

Idazkiarekin batera, hartutako erabakiaren ziurtagiria aurkeztu da.

BIGARRENA. – Aurreko apartatuan adierazitako ondorioetarako, Gipuzkoako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganberako idazkari nagusiak, 2024ko apirilaren 25ean, lehendakariaren oniritziarekin, ziurtagiri bat eman zuen, Gipuzkoako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganberaren Osoko Bilkurak 2023ko abenduaren 14an balio osoz egindako ezohiko bilkuran hartutako erabakiari buruzkoa. Erabaki horren bidez, aho batez onartu zen Gipuzkoako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialaren Barne Araubidearen Erregelamenduko aipatu artikulua aldatzea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA. – Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialek, beren jarduera gauzatzean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tutoretzapean daude, Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganberaren apirilaren 1eko 4/2014 Oinarrizko Legearen 34. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.21 artikuluan ezarritakoaren arabera. Tutoretza-eginkizun horren barruan sartzen da aipatutako 4/2014 Legeak aipatzen dituen administrazio-ahalak baliatzea, hau da, onarpenarena, fiskalizazioarena, errekursoak ebaztearena, etetearena eta desegitearena.

BIGARRENA. – Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganberaren apirilaren 1eko 4/2014 Oinarrizko Legearen 34. artikulua honako hau xedatzen du:

"1. *Merkataritza*, industria, zerbitzu eta nabigazioko ganbera ofizialak, beren jarduera gauzatzean, Estatuko Administrazio Orokorraren edo kasuan kasuko autonomia-erkidegoen tutoretzapean egongo dira, baldin eta autonomia-erkidego horiek dagozkien eskumenak bereganatu badituzte estatutuen bidez.



Lege honen 35., 36. eta 37. artikuluetan aipatzen diren administrazioaren onarpen-, fiskalizazio-, errekurtsioen ebazpen-, etete- eta desegite-ahalez baliatzea hartzen du tutoretza-funtzioak".

HIRUGARRENA. – Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganberen apirilaren 1eko 4/2014 Oinarizko Legearen 16. artikulua honako hau xedatzen du:

"1. Ganbera bakoitzak bere barne-araubideari buruzko erregelamendua izango du; osoko bilkurak proposatuko du erregelamendu hori, eta administrazio babesleak onetsiko. Administrazio babesleak, halaber, erregelamendu horren aldaketa sustatu ahal izango du.

2. Erregelamenduan jasoko dira, besteak beste, osoko bilkuraren egitura, eginkizunak, batzorde betearazleko kideen kopurua eta kideak hautatzeko modua, eta gobernu-organoen funtzionamendu-arauak."

LAUGARRENA.- Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganberen apirilaren 1eko 4/2014 Oinarizko Legearen 10. artikulua honako hau xedatzen du:

"1. Osoko bilkura Ganberaren gobernu- eta ordezkaritza-organo gorena da. Gutxienez 10 kide eta gehienez 60 izango ditu, eta lau urteko agintaldia izango du.

2. Osoko bilkura osatzen duten kideak talde hauetan zehaztuko dira:

a) Osoko bilkurako kideen bi heren, gutxienez, ganberetako kide diren enpresa guztien ordezkariak izango dira, sektore ekonomikoen ordezkaritza kontuan hartuta. Ordezkaritza hori administrazio babesleak ezartzen dituen irizpideen arabera zehaztuko da, BPGari egiten dion ekarpena, enpresa-kopurua eta enplegua kontuan hartuta. Bokal horiek sufragio aske, berdin, zuzen eta isilpekoaren bidez hautatuko dira, mugapean merkataritza-, industria-, zerbitzu- eta nabigazio-jarduera bat egiten duten pertsona fisiko eta juridiko guztien artean.

b) Enpresen ordezkariak eta ganbera bakoitzaren barrutian bizitza ekonomikoan prestigio aitortua duten pertsonak, administrazio babesleak zehazten duen moduan, ordezkaritza handieneko sektorearteko eta lurraldeko enpresa-erakundeek proposatuta. Horretarako, enpresa-erakunde horiek proposatutako hautagaien zerrenda aurkeztuko dute, bete beharreko kideei dagokien kopuruan.

c) Mugape bakoitzean borondatezko ekarpen handiena egiten duten enpresen ordezkariak, administrazio babesleak zehazten duen moduan aukeratuak."

BOSGARRENA.- Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialen hauteskunde-prozedura eta gobernu-organoen osaera arautzen dituen maiatzaren 26ko 78/2015 Dekretuaren 3. artikulua honako hau dio:

"3. artikulua. – Osoko Bilkura.

1. – Osoko Bilkura ganberen gobernu- eta ordezkaritza-organo gorena da.

Kide kopurua 10 eta 60 artekoa izango da, eta barne-araubideari buruzko arauan zehaztuko da.

Osoko Bilkura osatzen duten kideak talde hauetan sailkatuko dira:

...

C) Ganbera bakoitzeko mugapean borondatezko ekarpen handiena egin duten enpresen ordezkariak. Enpresek ganbera bakoitzari agintaldi bakoitzean egindako borondatezko ekarpen ekonomikoen, efektiboen eta ordaindutakoen arabera hautatuko dira. Barne Erregimeneko Araudiak zehaztuko du zein kuota-tarte aukeratu eta hautatzeko prozedura. Bete beharreko gainerako kideak talde honetakoak izango dira.



Borondatezko ekarpen ekonomikoa egiten duten enpresek mante ner delakoaren konpromisoa hartu beharko dute ekarpen horiek egiteko, hauteskunde berriak egin arte. Ekarpen ekonomiko horiei eusten ez bazaie, Osoko Bilkurako kide izateari utziko diote, eta, hala badagokio, kide berriak hautatuko dira. "

...

SEIGARRENA.- Gipuzkoako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganberako idazkari nagusiak 2024ko apirilaren 25ean emandako ziurtagirian jasotzen denez, Gipuzkoako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialaren 2023ko abenduaren 14ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez onartu zen Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganbera Ofizialaren barne-araubidearen erregelamendua aldatzea.

ZAZPIGARRENA.- Euskal Autonomia Erkidegoko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren arabera, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari dagozkio Merkataritza, Industria eta Nabigazioko ganberen egitekoak eta jardun-arloak.

ZORTZIGARRENA.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuak 6.2. ñ) artikuluan ezartzen duenez, Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzari dagozkio Merkataritza, Industria eta Nabigazioko ganberak babesteko ahala baliatzea.

Horregatik guztiagatik, aipatutako lege-aginduak eta oro har eta bereziki aplikatu beharreko gainerako arauak ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT

BAKARRA.- Gipuzkoako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialaren barne-araubidearen aldaketa onartzea, korporazio horren osoko bilkurak 2023ko abenduaren 14an hartutako erabakian ezarritako baldintzetan.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioko Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean.

IZ.: Jesús M^a Garcia de Cos
TURISMO ETA MERKATARITZAKO SAILBURUORDEA